

3. GAIA: ABSOLUTISMOA ETA PRENTSA

Idea nagusia: Lehenengo gazetak sortzen dira, prentsa modernoaren garaian.

- Monarkia absolutisten garaian gaude.
- Berpizkunde kultural eta zientifikoa gauzatuko da Aro Moderno luzean zehar. Zibilizazio modernoa ez da gaur egun, XIX. mende osoan zehar eta XX. mende osoan gailentzen den mundua ikusteko modua da.
- Kazetaritza modernoaren jaiotza.
- Berrikuntza guztiek zibilizazio modernoan kokatzen lagunduko gaituzte. Garai honetan sortuko den prentsa moderno horrek zientzian gertatuko diren aldaketak zabaltzen lagunduko du

1. ARO MODERNOAREN TESTUINGURUA

- Westfaliako bakea (1648). Hau da gerra absolutuak bukatzen direnetik. Bake itun honetan itxirik gelditu zen gatazketako bat “Espainiako Inperioarena” izan zen. (Espainiako Inperioaren amaiera)
- 1789. arte (Frantziako Iraultza) indarrean Europa osoan.
- Monarkia Absolutuak
- Zuzenbide Jainkotiarra: bere boterearen iturria jainkoa da eta jainkoaren aurrean soilik du erantzukizuna
- Europako Erlijio Guden bukaera (1648).
- 1789. arte indarrean Europa osoan.
- Frantzia Absolutista eredu (Luis XIV).
- ***Erregearen hitza legea da.***
- Loraldi kultural eta zientifikoa.
 - **Berpizkundera:** Kultura greko-erromatarraren berpizkundera eta eremu kulturean eta bereziki zientifikoan, aurrerakuntza handiak zientzian. Mundua ulertzeko forma aldatuko da
 - Iraultza kopernikarra: mundua da mugitzen dagoena, gauzak mugitu eta aldatu egiten dira. “Denbora aurrera

doa eta gure eskuetan dago denbora eta gauzak aldatzea”

- Arrazionalismoa: *cogito ergo sum*. Arrazoi erabiltzeko kapazitatea gailenduz joango da, hau da, pixkanaka hegemoniko bihurtuko da ideia hori.
- Antropozentrismoa. El ser humano es el centro de todo
- Ikerkuntza zientifikoaren loraldia (Fisika, astronomia, biologia eta kimika). Iraultza zientifikoa. Obserbazioarekin lotura.
 - Heliozentrismoa: Planetak eguzkiaren inguruan bira egiten dute
 - Endo noseke (aurrerago ikusiko dugu)

2. KOMUNIKAZIOA ABSOLUTISMOAREN GARAIAN

Monarkia absolutua inprentarekin zerikusia daukan guztia kontrolatzen saiatuko da. Publikatzen den guztiaren gaineko kontrola.

- Inprentaren kontrola
- Zentsura prebentiboa/Sistema prebentiboa (publikazioa atera aurretik atxilotu dezakete inprentaria) eta arbitrarioa (Egun batean lizentzia bat ematen dizut gauza bat egin dezazun eta bihar ez)
 - Lizentzien kontzesioa. Erregearen lizentzia behar da inprenta edukitzeko.
 - Edukien zentsura/debekua. Behin lizentzia jasota (inprenta eduki ahal izateko) gero ale bat kaleratu baino lehenago ofizialari eman eta berak baimena ematen du publikatzeko o ez.
 - Argitalpen lagunen sustapena. Monarkia Absolutuak inposatzen ditu argitalpenak, hau da, erregearen interesen arabera argitaratzen dira lanak (adb: *La Gaceta de Madrid*).
- Absolutismo garaian **kazetaritza modernoa** sortzen da (kazetaritza elitista). Eta aniztasun handia egongo da egunkarien artean. Hala ere Frantziakoa izango da errege, gainontzekoek kopiatuko dutena

3. FRANTZIA ABSOLUTISTA ETA PRENTSA

Erregearen babespean sortzen diren 3 egunkaririk garrantzitsuenak eta Europako beste herrialdeetan kopiatuko direnak (**Luis XVI. testuinguruan**)

- **La Gazette (1631)**
 - Teophraste Renaudot “kazetaritza modernoaren aita”. Frantzia absolutistan sortu zen. Zeina herrialde ezberdinetak kopiatuko den.
 - Erret Pribilegio eskusiboa eta bizi osorakoa. Erregearen aldekoa zen. Bizi osorako lizentzia bat lortuko du erregearen eskutik.
 - Politika eta diplomazia (Estatuaren interesak aztertzen dituen zientzia) gaiak. Atzerrian gertatzen diren informazio gaiak publikatuko dira batez ere.
 - Asteko aldizkakotasuna dauka. La Gaceta de Madridek (Boletín Oficial del Estado-ren aintzindaria), hau eredu hartu zuen.

- **Le Journal des Sçavans (1665) Oso garrantzitsua!**
 - “Jakintsuen egunkaria”. Berpizkunde eta iraultza kulturala gertatzen denez, garapen zientifikoa ematen denean, horrek hedapena dauka kazetaritzari esker eta hau horren adibidea dugu.
 - Prentsa zientifiko eta kulturalaren adibiderik garrantzitsuena. Matematika, teologia, arte ederrak.... landuko ditu.
 - Aldizkakotasuna 3 hilabetetik behin eta liburu itxura izango du, lodiagoa da bestea baino.

- **Mercure Galant (1672)** Kazetaritza literario eta arinaren (friboloaren) adibide
 - Gizarte kronikak, moda, literatura, antzerkia eta abar. Gaur egungo prentsa arrosaren eredu.
 - Izendatze ofizialak (gorteetakoak), ezkontzak, moda erreportaiak. Modaz hitz egin zuen lehen aldizkaria, gorteetara joateko zein arropa jantzi behar zuen, bertsoak, poemak... Denetarik agertzen zen baina guztia fribolitate horren eremuaren barnean.

4. BRITANIAR EREDU AURRE-LIBERALA

- Kasu berezia dela esan dezakegu Bhan Monarkia parlamentarioa gauzatu zen (Iraultza loriatsuei esker) , Europan zehar beste herrialde guztietan absolutismoa zegoen bitartean eta honek eragina izango du prentsan.
- Bill of Rights (1689) Iraultza loriatsuaren ondorioz akordatzen dute.
- Interes komertzialetan jartzen dute begia.
- *Printing Act* edo *Licensing Act* 1695 urtean desagertu eta adierazpen askatasuna baldintzatzen duen sistema bat agertzen da (prentsa elitista).
- Kontrol forma berriak:
 - Legebiltzarreko saioak argitaratzea debekatua
 - Zerga sistema (Stamp Act) 1712ko lege bat da. Zerga sistema bat zegoen periodiko bat sortu nahi zenuenean edo periodiko bat eros nahi zenuenean beraz dirurik ez baldin badaukazu “estás jodido.”
 - 3 gauza grabatuko ditu:
 - Alde batetik egunkariak egunero argitaratuko dituen ale bakoitzeko zerga bat.
 - Gero prentsan agertzen zen publizitateagatik ere, iragarki bakoitzagatik zerga bat ordaindu behar zuen eta: Tinbrea
- Kalitate handiko obrak dira
 - The London Gazette (1665)
 - The Daily Courant (1702) egunero ateratzen den egunkaria izango da, gure egungo ereduaren oso antzeko: *El Censor y El Pensador*
 - The Tatler (1709) aldizkari honek denbora gutxiago iraun zuen eta ez da horren garrantzitsua eta The Spectator (1711)
 - The Gentleman’s Magazine (1731) Edukien aniztasuna izango du ezaugarri politika kontuak, denbora pasak , asmakizunak... Magazine hauen aldizkari garrantzitsuenetakoa garai horretan